

Juanita Uribe Urrutia

*Eskoriatza,
Gipuzkoa
(1929-2022)*

Aurkibidea

Biografia



Gatzagan jaiotakoa. Ezkondu ondoren Eskoriatzara joan zen bizitzera.

Zintak

ESK-029

- **Proiektua:** Deba Eskualdeko Ahotsak - Eskoriatza.
- **Elkarrizketatzailea(k):** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Data:** 2006-04-06
- **Iraupena:** 25 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin - Isazelaia Igartua, Jaione

Pasarteak

1. Leintz Gatzagako Sarrikorta baserrian jaioa; herrira eskolara

- **Erref:** ESK-029/001
- **Iraupena:** 0:03:10. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Leintz Gatzagan jaio zen Sarrikorta baserrian. Eskolara herrira joaten zen. Eskola eliza ostean zegoen. 10 urte inguru zituen eskolan hasi zenean eta 16 ingurura arte ibili zen. Askotan ezin izaten zen eskolara joan, baserrian lana izaten zutelako. Gaztelan ez duela sekula ganoraz ikasi komentatzen du.

Transkripzioa

-Lelengotik, Juanita, zu noiz jaixotakua zara?

-Nik ein dittut setenta y siete.

-Gatzan bertan, herrixan.

-Bai, jaixota basarrixan.

-Basarrixan?

-Basarrixan, basarrixan.

-Baiña zer zeuan, herrixan bertan?

-Herrixan, baiña basarrixetan, basarrixak dauz han. Bestela herrixan, kalian figurau dana, baiña basarrixan jaixua.

-Eta inguru hari zela esaten jako, auzu horri edo?

-Auzue ez da. Basarrixa bakarrik, Sarrikorta, baiña basarrixa bakarrik. Gero beste bat [Tranpena], beste bat [...], holan zabaldua. Beste herrixa Gatza, kalia.

-Orduan basarrixan jaixotakua...

-Bai.

-Eta eskolara eta?

-Kalera. Etortzen nintzen behera, eskolara, herrira.

-Nun zeuan orduan eskolia?

-Ointxe dauen inguruen. Ointxe dauen, eleixaostien, hantxe. Hantxe auen lehen be.

-Eta goguan dakazu zenbat urtekin hasi ziñan eskolan?

-Ba nik gutxienez euko nittuen hamabi bat urte.

-Hasi ziñanian?

-Bai. Hamabi... Hamabi be ez naban eukiko baiña hamar bai. Lehen ez zan [...] hola faten. Haunditxuao faten zan; aizta bi, gu hamar bat urte bai.
-Orduan hamar urtekin eskolara. Eta zenbat urte egingo zenduzen han?
-Erdixetan fan be ez. Erdixetan fan be ez.
-Basarrixan lan asko?
-Klaro, amagaz eta holan; ta orduen ez zan faten eskolara, gutxi faten zan. Hamazortzigaz fan nintzen gaz fabrikara.
-Orduan hor bittartian?
-Bai, hortxe bittartian. Hamazortzi urte arte..., ibiliko nintzen hamaxei urte arte. Hamazortzi arte holako herrixetan ez zan egoten zeaik, eskolaik. Hamaxei urte. Xei urte ifiñizu. Xei urte, "lo único".
-Eta zelan gogoratzen dozu maistrua-edo, zer zekazuen, maistría-edo?
-Maistría... nik horixe, izena ez dakit zela euko eban. Hainbeste kanbixau zan.
-Asko kanbixatzen zien?
-Bai. Ez dakit. Zela esango dotsut ba.
-Eta zer zien, kanpotarrak ala bertakuak?
-Ez, bertakuak ez, etorri eitten zien. Maria, nik ez dakit zelan, [...], fijo ezin neiketzu esan.
-Orduan kanpotik etortzen zien, eta klasiak eta ze izaten zien, euskeraz, erderaz?
-Euskera, erderaz. Orduen euskeraik ez auen. Erderaz. Eta erdixetan ez gintzen etorten; batien ganau zain, bestien ardi zain, ez gintzen etorten, eta ezebez.
-Eta orduan erderaz zelan konpontzen ziñazien? Ordurako ya bazekizuen...?
-Ba nik ez dakit; erderaz be ez geuen eingo, erderaz ez geuen ikesi-ta. Euskeraz eingo zan igual eskolia, e, baiña nik fanda daukat horrek gauzok. Euskeraz eingo zan, ze erderaz ez geuen ikasi-tta, erderaz zelan ez zan etxian be eitten eta iñun be ez zan erderaz eitten, ikesi be ez geuen eiñ-eta. [...] ikesi be ez.

2. Inguru guztietako umeak Gatzagako eskolan

- **Erref:** ESK-029/003
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:04:10. **Bukatu:** 00:05:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Inguru guztietako umeak joaten ziren eskolara, baina guztira ez ziren asko ibiltzen, 16 inguru. Maria zuen izena irakasleak. Etxean ez zitzaion ematen garrantzirik eskolari.

Transkripzioa

-Orduan eskolara zein joaten ziñaten, inguruko auzoetakuak?
-Inguruko auzoetakuak eta kalia eozenak.
-Orduan asko juntauko ziñaten.
-Ba asko be ez. Gu ez gintzen asko juntauko. Hamen danak be hamaxei bat? Hoixe. Gehixau ez.
-Eta gaiñera edade diferentetakuak.
-Bai, edade guztikuek, edade guztikuek Orduan zela bat egoten zan. Doña

Maria pentsetan dot (eukela) izena maistriak.

-Maistriak?

-Bai. Eta danok batera. Eta erdixetan... Baiña orduen ez jakon inportantziak emuten, porke faltaten bozu ez bozu ez [...]

-Etxian ez jakon inportantziarik emuten?

-Eske etxien ez jakon inportantziarik emun... Edo behixekin ittaurren, edo bestietan hau [...], ez jotsen inportantziarik emuten. Bapez.

-Eta zure moduan bestiak.

-Bestiek be danak holaxe, bestiek be danak holaxe.

3. Laboreak egiten eskolan ikasi zuen

- **Erref:** ESK-029/005
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:05:10. **Bukatu:** 00:07:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Libururik ez zuten eramaten etxera, baina koadernoak bai. Arbel txikiak erabiltzen zituzten. Oinarrizko gauzak ikasten zituzten. Zapatuetan ez zuten klaserik izaten. Laboreak egiten eskolan ikasi zuen berak. Mutilek beste gauza batzuk ikasten zituzten.

Transkripzioa

-Eta eskolan liburuak-eta zer izeten zien?

-Ba liburuak, badakitzu, liburu batzuk emuten auen bertan, eta bertan. [Etxerako] debereik eta ezebez.

-Bertan egoten zien liburuak eta ez zenduen erosten.

-Ez, ez. Kuadernuak emuten oskuen eskribiduteko eta gauzak eitteko ta.

-Orduan zuek pizarriñik eta?

-Pizarriña bai, pizarrak bai. Pizarra baltzak. Hainbeste urtian ahaztute dana.

-Ez, ez. Ikusi zela gogoratzen dozun.

-Pizarrak.

-Eta zer ikasten zenduen, matematikia edo, sumar...?

-Sumar eta restar, dividir, eta hori dana nakixen, ia ahaztu, baiña hori bai. Bai, horretzek, horretzek; horretzek itten gauen.

-Eta maparik-edo eukitzen zenduen?

-Horman?

-Bai.

-Kia. Orduan ez auen mapaik, ia urte asko da eta.

-Akordatzen jatzu eskolia zapatuetan be emuten zenduen?

-Ez.

-Zapatuetan jai?

-Zapatuetan jai. Hori bakit. Zapatuetan jai. Bestelan be bost egunien faten gintzen.

-Eta laborerik edo egitten zenduen?

-Bai. Nik hantxe ikesi neuen gantxillue-ta eitten. Gantxillue eta horrek gauzok nik hantxe ikesi neuen.

-Maistriakin?

-Bai, eskolan, eskolan; puntugiñen be bai. Nik jersiek itten, oin ez, baiña gauza asko ein dot lehen; galtzak ein-eta, hantxe ikesi geuen, eskolan ikesten zan. Baiña ez dakit ba, dana itxi...

-Eta zeuek neskak hori eitten zenduen, eta mutillak be bai-edo?

-Ez. Mutillek beste gauzaan bat, dibujo-edo, beste gauzaan batzuk. Hori pentsetan dot eguenetan-edo ez dakit zelan eitten gittun horrek gauzok. Astien behin.

4. Garizuman txirikiletan jolasten zuten

- **Erref:** ESK-029/006
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:07:00. **Bukatu:** 00:10:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolako jolas-orduan jolasten zuten, baina eskolatik irtendakoan ez zuten jolaserako astirik izaten, baserriko lanak egin behar izaten zituztelako. Domeketan arrosarioa errezatu behar izaten zuten eta gero egiten zuten jolas. Garizuma denboran txirikiletan jolasten zuten. 18 urtera bitartean jolasten zen txirikiletan eta txokolata ere hartzen zuten. Jolasaren inguruko azalpenak. Jolas-ordu garaian sokasaltoan ere ibiltzen ziren. Tortoloretan ere jolasten zuten. Jolasaren inguruko azalpenak. Beste jolas batzuk.</p>

Transkripzioa

-Eskolatik urten eta jolasteko astirik izaten zenduen?

-Errekreuen ibiltzen gintzen, bai. Baina astirik ez, gero etxera. Lanien, zela behixak-eta asko eukitten geuen, ba ganajatekuek eruen, ez dakitzu? Etxera listo. Ez geuen eukitten astirik.

-Baiña egunen baten eukiko zenduen jolasian eitteko astixa, domeketan-edo?

-A! Domeketan kalera jazten gintzen. Erresaixua, beti egoten zan erresaixua, erresaixora etorten gintzen. Eta gox fan biher izeten zan etxera, baiña behintzet geure erresaixua errezetan gauen.

-Eta errezauta gero, jolasian egiten zenduen?

-Bai, bai. Eitten gauen jolas, eta gero argiz etxera, ezta? Baiña behintzet ba... Baiña hori bai, e! Eta gero han auen kostunbria gero txirikilla-denporan, Garizuman txirikillan. Zuk hori [entzun be ez dozu... eingo]. Holako egurtxo batzuk izeten diez, eta zer bategaz txirikillan.

-Garizuman bakarrik?

-Garizuman bakarrik. Eta gero hartzen gauen txokolatia. Zergatik e hamazortzi urte arte hori txirikilla asuntuoi eukitten gauen; eta gero txokolatia. Dirurik ez gauen eukitten, baiña ba haxe.

-Txirikillia izaten zan Garizumako jolasa?

-Garizuman bakarrik.

-Eta zer zan, makilla batekin?

-Bai, holako egurtxo bat hartzen zan, eta makilla luze bateaz [...], zeñek urriña bota haxe txirikillia.

-Neska eta mutil...

-Danak junto. Holako zer bategaz makillia jotzen zan, eta danak junto jolasian.

-Eta makillia zeuek egiten zenduen?

-Geuk, geuk. Geuk eitten geuen, zegatik korosteixa izeten zan, eta basarrira fan, hartu korosteixa eta itten zan.

-Korostixakin eitten zan?

-Bai, makillia korosteixakin.

-Orduan zeñek urriñoa bota?
 -Zeñek urriñoa bota irabazi, irabazten [zan]. Konpaaziño... bi eta bi, hiru eta hiru, eta zeñek eta urriñoa botaten auen, ba ha(re)txek irabazi.
 -Eta beste jolasik gogoratzen dozu? Sokasaltuan edo?
 -Bai, hori be bai. Sokasaltoka neskak. Sokasaltoka neskak be bai. Hori eskolatik urtenda errekreuan-eta be bai. Sokasaltoka be eitten gauen, ibiltzen gintzen. Batek handikaldien erain eta bestiek hemetikaldien-eta. Sokasaltoka.
 -Eta harrapatzen?
 -Hori mutillek bai, baiña guk ez, neskak ez. Gero ibiltten gintzen jolasien, tortolesak ez dakit entzunde daukazun.
 -Entzunda bai, baiña...
 -Ardixen [...]. Tortolesak, tortoleska be bai, tortoleska eitten gauen. Jolasien hantxe. Tortoleska gauzatxo bat izeten da, buelta emun bestia emun. Tortoleska. Hori eitten gauen. Eta eitten gauen, konparaziño baten, arraixak ein horregaz, zer zurixaz, tiza edo zurixaz, eta harritxuekin zerien. Hankakin zenbat eta zera, arraixak...
 -Horri zelan esaten dotsazue?
 -Ez dakit zela esaten jakon be.
 -Txindurrizka edo?
 -Ez dakit.
 -Ea tortolosekin zeozer erabiltzen zan? Kanikaren bat edo pelotaren bat?
 -Ez. Tortolesak ifintten zittuen eta, ez dakit zelan, buelta emuten jaten. Bai, kanikan bategaz. Eta buelta emun, bertan buelta emun. Hantxe be zeñek gehixau, eta hoixe, besteik ez.
 -Orduan zuek kromorik eta eukitzen zenduen?
 -Ez.

5. Bolatokia Gatzagan

- **Erref:** ESK-029/007
- **Iraupena:** 0:01:25. **Hasi:** 00:10:30. **Bukatu:** 00:11:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

<p>Mutilen jolasak. Mutilek bolekin jolasten zuten. Nagusiek ere egiten zuten boletan, baina haiek bola onekin. Bolatokia non zegoen Gatzagan.</p>

Transkripzioa

-Mutillak zertara jolasten zebeñ, kanikak eta izaten zittuen?
 -Kanikak baiño, boluen. Ez dakitzu horrek boluek ifini, boluek ifintten die, eta gero pelotiekin, eta holakuek.
 -Eurak egindako boluekin?
 -Bai, euren zerekuak. Boluen jentie ibiltten zan, nausixa be bai domeketan, nausixa. Baiña ia harek eukitten eben bolo onak. Eta mutikuek ba bakitzu.
 -Bolatokixa nun zeuan Gatzagan?
 -Ba gorutza goiazela holaxe eskumetara. Han estankue badakitzu nun dauen han behien, hantxe behien, hantxe.
 -Eta han bolatokixa.
 -Eta han eitten euen.
 -Gizonezkuak?
 -Bai. Eta mutillak eta horrek. Emakumeik ez.

-Eta badakizu jolasten zebenian, posturarik eta egoten zan? Dirua eta?
-Orduan diruik ez zan egoten, ez zan egoten diruik. Baiña bai, ahal dauenak ba dirua.
-Dirua edo beste zeozer...
-Zeozer. Guk konparaziñorako, esan dotena, txirikillan ba, txokolatía eitten gauen. Ez dakitzu? Gero juntau danok, ez gauken diruik be, baiña daukenak ba han etxe baten, zer baten, zera ein, txokolatía ein.

6. Meza ostean gizonak bola-jokora

- **Erref:** ESK-029/009
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:12:50. **Bukatu:** 00:14:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizkizunak eta otoitzak
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Iritziak » Antzinako bizimoduari buruzkoak

Laburpena:

Bolatokia zegoen Gatzagan. Meza ostean gizonak boletara joaten ziren. Bola-jokoaren inguruko azalpenak; 7 txirlo bota behar izaten ziren.

Transkripzioa

-Bolatokixa esaten dostazu. Basarritarrak be joaten zien ala kaleko jentia bakarrik?
-Mezetara fan ezkeru bai. Basarritarrak mezetara fan ezkeru denporie emuten edo ez dakit, faten zien.
-Eta zuk ikusi zenduen boletan zela eitten zeben?
-Bai. Holako zer batzuk egoten zien, zer batzuk gora begira. Zazpi izeten zien. Gero hemendik bota zera, pelotan moduen harrixa... zera; eta zenbat eta bola gehixao bota ba hortxe, hortxe zan irabaztia.
-Orduan zazpi izaten zien. Hirukin ez dozu ezautu?
-Ez. Bost edo zazpi.
-Eta esaten dozu mezetara jaisten zienian aprobetxatzen zebela?
-Bai, aprobetxatzen zeuen mezetara [etozenian].
-Eta mezetara etortzen zien andrazkuak?
-Ez, keba! Mezetara etorten zien andrak eta zerak, mezie entzun eta aide. Etxera. Ez auen han ezer. Oingo moduen tabernara fanda eta eraten-eta ezebez.
-Gainera gaizki ikusitta?
-Honbre! Orduan txarto [pentsaten] zan. Neu Eskoritzara etorri nazen ezkeru han ez gauen ezer [...]. Oin Eskoritzara etortzen [...] pasio bat egin eta kortau bat hartu-eta, pentsau be ez.

7. Gasteizerako joera; plazara eroatera

- **Erref:** ESK-029/010
- **Iraupena:** 0:03:40. **Hasi:** 00:14:10. **Bukatu:** 00:17:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera
- Aisia » Taberna giroa » Tabernak eta jatetxeak
- Herria, azpiegitura » Garraioak » Trenak

Laburpena:

<p>Gatzagako denda eta tabernak; ez zegoen denda edo taberna asko. Baserrirako generoa Gasteiztik ekartzen zuten. Autobusez joaten ziren Gasteizera; "Bergaresa" autobusak. Ostegunetan azoka egoten zen Gasteizen eta orduantxe joaten ziren erostera. Trena ere bazegoen Gasteizera; "Gure Ametsa"n zuen geltokia. Gasteizko plazaren inguruko kontuak. Trena nondik zehar joaten zen Eskoriatzatik Gasteizera; geltokiak non zituen. Egunean 4 aldiz edo pasatzen zen.</p>

Transkripzioa

-Akordatzen jatzu zeu umia ziñala Gatzagan zer denda edo taberna zeren?
-[Pedrofanena...] Ez euen taberna asko. Eta ez auen... Rafena, Rafaelena, Rafe.
-Zuek zela esaten zotsazuen, Rafena?
-Bai. Eta ez auen, taberna asko ez auen. Ez auen, taberna asko ez auen.
-Eta dendarik?
-Bai, Marixena, Estakua. Estankua, Marixena. Bestelan ez auen, ez auen.
-Eta eguneroko konprak han egitten zian?
-Bai. Eguneroko konprak hantxe, bestela Bitorixatik ekarten gauen, basarrira Bitorixatik. Bitorixara faten gintzen konprak eitten.
-Orduan jokera gehixao Bitorixara joateko Eskoriatzara baiño.
-Bai, bai. Eskoritzara baiño Bitorixara. Handik ekarten gittuen okela-ta...
-Eta hara zela joaten ziñaten?
-Autobusa auen. Autobusez. Eta bestelan ba kotxeik ez zan egoten, ba, autobusian faten zan, autobusez.
-Autobusa zer zan?
-Vergaresa, ointxe pasetan dana, Vergaresa. Gure Ametsa-n geraketan zan.
-Eta jente asko juntatatzen ziñazien Bitorixara joateko?
-Bai, Bitorixara fan... Jente asko ez.
-Jente guztiak eukiko zeban jokera berdiña...
-Bai, bai. Hanguak ba hoixe, eguenetan hara fan.
-Zergatik eguenetan?
-Plazia egoten zan egunetan. Plaziaz ba faten zan plazara. Berdurak eta bakitzu.
-Zeuek saltzera?
-Guk ez. Baiña jentiek saltzen auen orduan be, gaztaie aukenak-eta saltzen auen. Baiña guk ez. Handik ekarri. Oiñ konparaziño batera gu faten gan moduen Mondrauera konpra onenak eitten, ba Bitorixara fan eta hantxe, haraxe. Handik Bitorixara auen jokerie, e. Trena auen, trena be bai, trena.
-Baiña zuek autobusez?
-Bai, autobusian. Ero trenien, trenien be asko. Trenien be bai, trenien faten gintzen. Trena geraketan zan hantxe, Gure Ametsan, eta trenien.
-Eta zelan gogoratzen dozu Bitorixa? Plazia esan dozu izaten zala eguenetan. Zer izaten zan, plaza ederra?
-Edarra. Orduen be edarra egoten zan.
-Berdura-plazia?
-Berdura-plazie, bai, berdura-plazie.
-Animaliarik eta ez?

-Ez.
-Landarak-eta?
-Landarak-eta bai. Porrue, azia, horrek landarok bai. Baiña bestela...
-Orduan batzuk saltzera joaten zien, baiña bestela erostera. Eta aparteko gauzak be han erosiko ziren, dendetan?
-Bai, erropa-eta. Zer dana Bittorixan gauken. Bittorixan bai, Bittorixan.
-Esan dozu trena be egoten zala. Orduan trena inportantia zan, ezta?
-Bai. Hemetik bueltaka-bueltaka, Eskoritzatik faten zan bueltaka, Mariñen hartzen auen jentia, Mariño [...], eta handik Gatzara, eta ondo. Landan be bai, Landan be jentia hartzen auen, eta danok. Trena be egoten zan, eztakit, hiru bat ero lau bat bai. Goxien beratzietan, gero atzera... , lau bat bider ero bai.
-Eta orduan paradia nun zekan?
-Gure Ametsa-n, [Erietzan, Erietzan], Gure Ametsa-n.

8. Sarrikorta baserriaren inguruko baserrien izenak

- **Erref:** ESK-029/012
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:19:00. **Bukatu:** 00:20:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

<p>Bere jaiotetxearen izena Sarrikorta da. Inguruko baserrien izenak. Gatzagan baserriak lehen baino hobeto daudela dio, orain ondo jarrita daude eta.</p>

Transkripzioa

-Basarrixan izena?
-Sarrikorta.
-Eta hau geratzen da herritik goialdera?
-Bai. Beste baserrixen izenak gura dozu?
-Bai.
-Sarrikorta, gero Tranpena, [Txarritxetegi]. Horrek die goixen batetik bestera hurrien.
-Segi.
-Tranpena, Lakitxetegi, Txarritxetegi, Agarre, Katatxetegi, Astesolo, zuk esan dozuna lehen Beitiena, Astesolo, eta Burdingurutz, eta San Martin. Horretxek... Hor aldien horretxek daoz. [...] basarrixen aldien. Bestaldera gehixao, bestaldera be badaz etxiak, baiña kamiñotik bestaldera. Hori da...
-Zuen basarrixan inguruan?
-Inguruan dazenak
-Imajinatzen dot lantzian behin joango zarela Gatzagara. Ingurua asko aldatu da? Galdu egin dira baserriren batzuk?
-Ez. Oso aldatuta daoz oin. Geu bizi gintzen basarrixa be oin edarto ifiñi dau loba batek. Oso ondo, ez die galdu bape, lehen baiño elegantiauak daoz.
-Eta basarrixak jausitta edo?
-Ez, ez, ez. Hor nire aldeko zerien basarririk ez dao jausitta. Hor... bizi die danien.

9. Aste Santuko prozesioak; herriko arkuak apainduta

- **Erref:** ESK-029/013
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:20:50. **Bukatu:** 00:22:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Elizarekin lotutako pertsonak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Eraikuntzak eta azpiegiturak
- Ohiturak eta bizimodua » Erljioa » Eliza giroko ospakizunak

Laburpena:

<p>Prozesioetan Ama Birjina erabiltzen zuten. Aste Santuan egun batean San Antonio ermitara eta bigarrenean Andra Mari elizara joaten ziren prozesioan. Herriko arkuetan loreak eta bestelakoak jartzen ziren. Arkuak botata daude gaur egun, baina arku bakoitzean santu bat zegoen lehen.</p>

Transkripzioa

- Zuk gogoratzen dozu prozeziñorik-eta, gauza espezialik gertatzen zan?
- Prosoziñua Ama Birjiñia, Ama Birjiñia eta ibiltten gauen. Ama Birjiñia prozosiñuen; enda zeetan, aste santuetan faten gintzen, lehen esan dotsutena, zer baten, egun baten San Antoniora, eleixatxo, ermitatxo bat. Eta bigarrenien Andramaixara, Andramaixara prosoziñuen. Prozosiñue eukitten gauen, bai.
- Eta hor arkuetan zeozer ipintzen zan?
- Bai, hor ifintten zan ba adornuek, ifintzen zan ba lorak eta gauzak. San Inazio eta dauz hor, ta han ifiñi eitten zan bere patroien zerien.
- Berez, zenbat arku dare? Goguan dakazu holan...?
- Ba, bota ein daue bat, gorutza oiena botata dau oin. Egongo diez... Arkuik gutxi oin, e? Botata dauz danak, arkurik ez dau, bat egongo da, eleix ondokua, besteik ez, bota ein zittuen, gero etxiek fan zien han, eta botata daz. San Inazio botata dau.
- Eta arku bakoitzian zer zeuan, santuren bat-edo?
- Santua. Baiña oin horrek botata dauz.
- Eta goguan daukazu zer santu zian?
- San Migel beste bat, San Migel; San Inazio, San Migel. Eta horretxek. Bestiek ez naz akordetan.
- Eta orduan prozesiñuetan aste santuan?
- Aste Santuetan, Aste Santuan faten gintzen San Antoniora, ermittara San Antoniora, eta bestia Andramaixara.

10. Igandero dantza egoten zen Gatzagako plazan

- **Erref:** ESK-029/014
- **Iraupena:** 0:03:15. **Hasi:** 00:22:50. **Bukatu:** 00:26:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara
- Aisia » Kultura » Dantza

Laburpena:

Igandetan dantzaldia egiten zen Gatzagan, eta inguruko auzoetako neska-mutilak (Marin, Marulanda, etab.) bertara gerturatzen ziren. Soinu-jotzailea

egoten zen igandetan Gatzagan. Neskatan-mutiletan nola ibiltzen ziren. Arropak, oinetakoak. Danbolinteroa ere egoten zen igandetan Gatzagan. Antzina pregoia ere irakurtzen zen herrian.

Transkripzioa

- Bestela Leintz-Gatzagara pertenezitzen daberen auzuak zeintzuk dira? Marin...
- Gatzara ez zan... hori Gatzakue bakarra da, bakarrik. Aiuntamentuz eta dana bakarrik da Gatzara. Hori Marin eta honek die Eskoritzakuak.
- Eta jokerririk ez zeuken Gatzara joateko?
- Bai, bai, Gatzara fateko bai.
- Eskoriatzara etortzia baiño?
- Bai. Domeketan egoten zan dantzia, bailia egoten zan, arkupe baten egoten zan bailia, eta zela egoten zan bailia ba hantxe juntetan gintzen marinttarrak-eta, maulandarrak-eta...
- Maulanda be elizaz-eta aiuntamentuz Eskoriatza da?
- Bai, Eskoriatza da.
- Eta jokeria?
- Bai, Gatzara, domeketan dantzara-eta.
- Orduan dantza...
- Bai, egoten zan kordion bat, kordion bat, bai. Nabarro izena euketen bat egoten zan gure denporan, eta dantzia egoten zan.
- Eta zer izeten zan, soiñua bakarrik?
- Soiñue bakarrik, kordiona. Fiestetan ez, baiña bestela kordiona.
- Eta filarmonikarik edo gramolia sasoi baten?
- Ez, ez, ez. Hor egoten zan hauxe, soiñua.
- Eta dantzia zelakua izeten zan, agarraua, sueltua?
- Bai, agarraua, sueltua ta dana. Tanboliña be baauen.
- Eta dantzia, mutillak izaten ziren neskei eskatzen zotsenak?
- Bai, bai. Egoten zintzen ezkiñan, eta mutillak, e, edo neskek dantzan ekitten ziren eta mutillak hara fan. "Mesedez" esan eta dantzara fan.
- Eta dantza hori nun izeten zan, herriko plazan?
- Bai, herriko plazan arkupe bat auen eta hantxe.
- Eta pagau eitten zan?
- Ez, ez, ez. Pagau eta ezebez. Hantxe juntetan gintzen, eta hantxe.
- Eta dantzara joateko elegante jantziko ziñaten?
- Bai, gauken erropak onenak. Oingo modukoik [ez dauen].
- Orduan zer izaten zan, abarketak?
- Eukitten gittuen zapatatxuek..., domeketako eukitten auean, zapatak domeketako eukitten gauen.
- Eta mutillak be dotore joango ziren?
- Bai, bai. Harek be zapatekin, alkondara edarrekin eta fraka edarrekin eta. Domeketan beti jazten gintzen... nik nere gizona hantxe, dantzan eta hantxe ezautu nauen.
- Esan dozu tanbolintterua be egoten zala.
- Bai, tanbolintterua.
- Ez dakit Gatzan-eta egongo zan, baiña pregoia-ta irakurtzen zan?
- Holan kaleik kaleez, baiña [...] zeoze bazan bai. Kaleik kale (hemengo) moruen ez, baiña goxen baten, domeka goxen baten zeozen zera bauean bai.
- Eta zeinek jotzen zeban?
- Horretxek tanbolintteru horrek.

11. Lan banaketa baserrian; lixiba nola egiten zen

- **Erref:** ESK-029/016
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:26:30. **Bukatu:** 00:30:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa garbitzea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

<p>Gizonezkoek soloan lan egiten zuten eta emakumezkoek etxean. Bera 18 urte baino lehen fabrikara joan zen lanera. Emakumeek ere lan egin behar izaten zuten soloan, baina basoko lanak gizonak egiten zituzten. Lixiba emakumeak egiten zuen. Erreka etxe ondoan zuten lixiba egiteko eta hantxe garbitzen zuten arropa. Lixiba nola egiten zen: arropa ontzi batean egoten zen ur berotan sartuta, xaboi takoekin; gero errekan astindu eta eseki.</p>

Transkripzioa

-Esan dozu basarrixan umetan askotan ez ziñatela eskola juaten.
-Bai, ez gintzen faten askotan eskolara.
-Lanak ziela?
-Lanak ziela eta ez ziela, askotan ez gintzen faten.
-Orduan baserrixetan lanak zela repartitzen zien? Gizonezkuak eta...
-Ezebez, Gizonezkuak ba soluen eta emakumiek etxien. Ama beti etxien: etxien edo behintzet etxeko lanak eitten. Eta nik esaten (d)otsutena, ni fan nintzen hamazortzi urten baiño lehenao gatz fabrikara.
-Eta emakumiak soluan-eta ez eben laguntzen?
-Bai. Geuk be bai, geuk be aittei lagunketan gutsen. Idixekin ibiltzen zan, eta geuk be bai.
-Basoko lanak eta?
-Gizonak, gizonak. Aittak anaiekin.
-Eta lixibia eta erropa garbitzia?
-Hori amak. Eta gero erarie geukenien geuk be bai.
-Eta erropak garbitzeko zelan?
-Labadoraik ez auen, auen errekia. Zer haundi bat, labadora bat...
-Labaderua?
-Bai, labadero..., hoixe, harri haundi bategaz.
-Eta errekia gertu zeukazuen?
-Bertantxe, etxe onduan. Etxe ondo-onduan.
-Eta zer izen zekan edo daka erreka horrek?
-Errekiak izena? Sarrikortan ba, ez dakit nik, errekia. Hantxe garbiketan [gauen] erropia, eta [...] zela lehenau ez auen labadoraik eta ezebe... holaxe. Lehenengotan, gero jarri zien labadorak eta gauzak, baiña holaxe.
-Eta amari-edo entzunda lixibia zela egitten zan?
-Bai, otzara baten erropa zurixa, bai. Otzara baten ifintten auen eta gero egosi eitten zan ur beruaz.
-Zuk hori ikusi zenduan?
-Bai, bai. Hori ikusi dot nik. Hori ikusi dot. Gero faten zan haren ura harri batera. Hori ikusi dot.
-Eta zelan izeten zan orduan, otzara baten...
-Sartu erropia eta hantxe ur beruaz ifiñi otzara edo zer baten, bai.
-Eta egosi?
-Bai, egosi moduan, ura bero-beruaz. Egon hantxe, jaboia botata hantxe

egon.
-Orduan jaboia bazeuan.
-Bueno, jaboia nik ez dakit, jaboï-hautsa ez, hori takuak, takuak. "Más bien" takuak.
-Eta han ur bero-beruakin...
-Hantxe egoten zan erropa zurixa, izarak-eta. Bestiak beste...
-Eta gero handik atara eta...
-Aklarau, alberkan aklarau, lixibia ein.
-Lixibia zenbatero egitten zan? Ez zan egingo egunero...
-Hori zeroi erropienoi?
-Bai.
-Hori hillien behin igual. Horrek izarok eta horreik ba holaxe. Baiña izarak izeten zien senduak.
-Eta egoten zan andren artian, harek lixibia egin dau eta zelako erropa zurixa dakan, eta...
-Beti hori egoten da, e.
-Harrokerixia...
-Hori beti egoten da. Hori beti.

12. Osaba batek haria egiten zuen artilearekin

- **Erref:** ESK-029/017
- **Iraupena:** 0:01:30. **Hasi:** 00:30:00. **Bukatu:** 00:31:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Euskara » Lexikoa
- Lanbideak » Antzinako lanbideak

Laburpena:

<p>Izarak sendoak izaten ziren, lihozkoak. Lihozko arroparik ez du ezagutu. Galtzerdiak ardi-ilearekin egiten ziren. Bere osaba batek maratilla batekin haria egiten zuen. Inoiz ez du inor goruetan ikusi.</p>

Transkripzioa

-Esan dozu izarak-eta senduak zirala.
-Bai. Zien senduak.
-Liñuzkuak?
-Liñuzkuak.
-Orduan zuk ezagutu ziñuzen liñuzkuak?
-Bai. Baiña liñuzko erroparik-eta?
-Ez.
-Eta sasoi baten basarrixan liñua eraitten zebena?
-Liñua ez. Baiña ardi-lania bai, ardi-laniakin eitten zan galtzetiñak. Eta iruten be bai, tio batek niri, tio batek itten auen. Maratilla bategaz, bueltaka-bueltaka holan eraitten; bueltaka-bueltaka, eta gero ba galtzak ein.
-Tua? Gizonezkua zan?
-Bai.
-Eta harek itten zittuan...?
-Harixa eitten auen; berak be galtzagiñan be baekixen.
-Eta maratillia...
-Maratilliaz. Egurrezko maratilliaz.
-Eta ama edo amandria edo halakoren bati...

-Amandriaik ez nauen ezautu.
-Edo aldameneko basarriren baten ikusi zenduen goruetan ingurun baten egitten?
-Goruetan ez dot ikusi.
-Ardi-lania...
-Ardi-lania ba horixe. Ardi-laniena zeagaz... Hori eitten auen tio batek nere denporan.

13. Baratzean lantzen zituzten gaiak

- **Erref:** ESK-029/018
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:31:30. **Bukatu:** 00:33:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

<p>Ganadua eta zelaiak izaten zituzten. Artoa, baba, patatak, garia ereiten zuten. Baratzean denetarik egoten zen lehenago ere. Letxuga lehen azukrearekin jaten zen eta gerora hasi ziren gatzarekin jaten. Ganaduentzat belarra edo bestela pagatxa ereiten zen.</p>

Transkripzioa

-Esan dozu aittak-eta basoko biharrak egitten zittuela.

-Bai.

-Han inguruko basuak zelakuak zien? Baserri gertuan zer zeukazuen, soluak?

-Dana solue.

-Eta basuak zer egoten zien, urriñao?

-Bai, bastante urriñao. Zelaixak, [ibiltten] zien behixak, zelaixak, ortua, eta horretzek. Hurrien ortua eta hoixe.

-Eta soruan zer eraitten zenduen?

-Erailten gauen artua, babia, patatak, horretzek. Garixa...

-Orduko ortuetan-eta gaur besteko berdurarik-eta egoten zan.

-Bai, bai. Ni akordetan... lekak, porruak, azak. Danetik. Azelgak...

-Puxkat danetik.

-Puxkat danetik.

-Letxugak eta tomatiak?

-Baitta. Letxuga ta tomatia eta dana. Dana egoten zan lehenau be.

-Eta zuek letxugia-eta zela jaten zenduen?

-Ba lehenau-lehenau jaten zan azukarraz. Azukarraz. Eta gero ia gatzaz.

Gero gatzaz, baiña lehenengo-lehenengo akordetan naz azukarraz.

-Ortua, zelaixa eta ganaua egoten zan. Soluan garixa eta artua.

Behixendako bedarra-eta ereitten zan?

-Ereiñ ez. Zelaixan zela [auen] bedarra ebai han, sikatu eitten gauen, eta bestela ebai.

-Eta pagatxia ero?

-Baitta pagatxia be bai, pagatxia be bai.

-Hori ereiñ...

-Hori eraiñ eitten gauen, hori eraiñ eitten gauen, bai.

-Basuak akordatzen jatzu zer zien, haritza, pagua, gaztaiña...?

-Gaztaiñie be bai, baiña pagua, pagua gehixao.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-04-08

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com